



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

## UDALEKO PLENOA. BILERA-AKTA ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 6  
EGUNA: 2021/07/29  
HASIERA ORDUA: 19:05  
AMAIERA ORDUA: 19:41  
TOKIA: Udaleko Batzar Aretoa

Nº: 6  
DÍA: 29/07/2021  
HORA DE INCIO: 19:05  
HORA DE FINALIZACIÓN: 19:41  
LUGAR: Salón Plenos del Ayuntamiento

### BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

#### **EH Bildu udal taldea**

Itziar Irizar Beristain  
Aritz Larrañaga Unanue  
Antxon Etxeberria Larrea  
Nerea Arrizabalaga Badiola  
Antxoka Elorza Altuna

#### **Debarren Ahotsa udal taldea**

Pedro Bengoetxea Loiola  
Isidor Lamariano Arostegi  
Ane Egidazu Elosua  
Enrique Salgado Alcorta

#### **EAJ-PNV udal taldea**

Iñigo Cambroner Alkorta  
Eneritz Gómez Lázaro  
Miren Esnal Laskibar

Jorge González Endemaño (Idazkaria)

### ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

#### **Grupo municipal EH Bildu**

Itziar Irizar Beristain  
Aritz Larrañaga Unanue  
Antxon Etxeberria Larrea  
Nerea Arrizabalaga Badiola  
Antxoka Elorza Altuna

#### **Grupo Municipal Debarren Ahotsa**

Pedro Bengoetxea Loiola  
Isidor Lamariano Arostegi  
Ane Egidazu Elosua  
Enrique Salgado Alcorta

#### **Grupo Municipal EAJ-PNV**

Iñigo Cambroner Alkorta  
Eneritz Gómez Lázaro  
Miren Esnal Laskibar

Jorge González Endemaño (Secretario)



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

#### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:

**Gilen:** Proposatu nahi dugu urgentziaz sartzea gai-ordenean Ondargaineko kontratuaren suntsipena.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Ondargaineko kontratuaren suntsipena bileran aztergaia izatea.

#### **1.- COVID-19 KUTSATZEKO EDO HEDATZEKO PREBENTZIO NEURRI GISA, HONAKOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO: OSOKO BILKURA HAU ATEAK ITXITA EGITEA**

**Gilen:** Aurreko bilkuran komentatu genuen agian edukiera kontrolatuta egitea, baina momentuz itxita jarraitzea proposatzen dugu. Abuztu eta Iraileko bilakaera, eta LABiren neurriak ikusi ondoren, denon artean erabakiko dugu zer egin Iraileko bilkuran.

Osoko Bilkurak aho batez onartu du Osoko Bilkura hau atek itxita egitea, COVID-19 kutsatzeko edo hedatzeko prebentzio neurri gisa.

#### **2.- AURREKO BILKURARI (2021/05/27) DAGOKION AKTA ZIRRIBORROA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Osoko bilkurak aho batez onartu du 2021/05/27 bilkurari dagokion akta zirriborroa.

#### TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS:

**Gilen:** Proponemos que con carácter de urgencia se incluya la cancelación del contrato de Ondargain como punto de la reunión.

El Pleno aprueba por unanimidad incluir la cancelación del contrato de Ondargain como punto de la reunión.

#### **1.- APROBAR, SI PROCEDE, LA CELEBRACIÓN DE ESTE PLENO A PUERTA CERRADA, COMO MEDIDA DE PREVENCIÓN DEL CONTAGIO O PROPAGACIÓN DEL COVID-19**

**Gilen:** En la sesión anterior comentamos que quizás se haga con el aforo controlado, pero de momento proponemos que siga a puerta cerrada. Tras ver la evolución de agosto y septiembre, y las medidas del LABI, decidiremos entre todos qué hacer en la reunión de septiembre.

El Pleno aprueba por unanimidad celebrar esta sesión de pleno a puerta cerrada, como medida de prevención del contagio o propagación del COVID-19.

#### **2.- APROBAR, SI PROCEDE, EL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR (27/05/2021)**

El Pleno aprueba por unanimidad el borrador de acta correspondiente a la sesión del 27/05/2021.



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

### 3.- ALKATEAREN DEKRETUEN KONTROLA

**Pedro:** Zerrenda bat daukagu: COVID19 dirulaguntzak. Hauek Udaletxearen dirulaguntzak dira?

**Gilen:** Horiek dira Aldundiak emandako dirulaguntzak prebentzio neurrietako, materialetarako edo inbertsionarako. Udalak baldintzak ipini behar zituen eta kudeaketa egin. Orain ordaindu dira.

**Pedro:** Besteak kotxeak sartzeko baimenak dira?

**Gilen:** Bai, hirigunean sartzeko baimenak dira.

**Iñigo:** Argipen bat nahi dugu. 262an "Debako eguneko zentroko animazio jardueraren kontratuaren aldaketa". Batzordean landutako gaia da?

**Aritz:** Eguneko zentroko langileen oporrak kudeatzerakoan, ikusi dugu pertsonal berria kontratatu gabe, aukera zegoela oporrak kubritzeko, animazio kontratua apur bat aldatzen. Egokitzapena egin da, eta dekretua da kontratu hori egokitzeko erabakia.

**Iñigo:** 427an "Itxaspe Auzoko lursailean txabola prefabrikatu bat ipintzea". Ez dugu gogoratzen batzordean azertu izana, eta ea beste informaziorik duzuen jakin nahiko genuke.

**Gilen:** Aldundiak onartutako tramite baten ondoren jasotako eskaera da, eta beraz, Aldundiak baimena eman ondoren, guri ere ematea tokatzen zitzaigun.

### 3.- CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE

**Pedro:** Tenemos un listado de subvenciones Covid19. ¿Estas son las subvenciones del Ayuntamiento?

**Gilen:** Estas eran subvenciones de la Diputación, relacionadas con el Covid19 para materiales de prevención o inversiones. El Ayuntamiento debía poner las condiciones y gestionarlas. Ahora se han pagado.

**Pedro:** ¿El resto son autorizaciones para los coches?

**Gilen:** Sí, son autorizaciones para entrar en el Casco.

**Iñigo:** Queremos una aclaración. En el 262 "modificación del contrato de animación del centro de día de Deba". ¿Es un tema tratado en la Comisión?

**Aritz:** Al organizar las vacaciones del personal del centro de día hemos visto que se podían cubrir estas vacaciones sin coger personal, modificando el contrato de animación. Se ha realizado una adaptación y se trata de la decisión de adaptación de ese contrato.

**Iñigo:** En el 427 "Itxaspe Auzoko lursailean txabola prefabrikatu bat ipintzea". No recordamos haberlo tratado en comisión y nos gustaría saber si tenéis algún detalle.

**Gilen:** Se trata de una solicitud recibida tras un trámite aprobado por la Diputación, por lo que, tras la autorización de la Diputación, también nos correspondía a nosotros darla.



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

Apuntatuko dut, eta aparejadorearekin hitz egingo dut; suposatzen dut bere prozedura izango dela.

Lo anoto y hablaré con el aparejador, supongo que será su procedimiento.

#### 4.- VIALINE ENPRESAK KUDEA-TUTAKO 2021EKO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATEAREN DEKRETIEN KONTROLA

#### 4.- CONTROL DE LOS DECRETOS DEL ALCALDE SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE 2021

**Pedro:** Orain arte "resolución de alcaldía" agertzen zen, baina azkenengoan esaten du "acto resolutorio conjunto". Zer desberdintasun dago?

**Pedro:** Hasta ahora aparecía "resolución de alcaldía", pero en la última dice "acto resolutorio conjunto". ¿Cuál es la diferencia?

**Idazkaria:** Desberdintasuna da "alkatearen dekretua" dela matrikula zehatz bati jartzen zaion isuna. Eta "acto resolutorio conjunto", beste dekretu bat da, jarritako isun guztien zerrenda biltzen duena.

**Secretario:** La diferencia es que en cada "resolución de alcaldía" se impone la multa de forma individualizada. Y en el "acto resolutorio conjunto" se hace otro decreto recogiendo toda la lista de esas multas individuales.

#### 5.- DEBAKO UDALEKO 3/2021 ZENBAKIDUN KREDITUEN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

#### 5.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 3/2021 DEL AYUNTAMIENTO DE DEBA

**Itziar:** Asteartean egin zen Ogasuneko Batzordeak onartu zuen.

**Itziar:** Se aprobó en la Comisión de Hacienda del martes.

Aipatuko ditut zer partidak diren:

Os comento las partidas que se tratan:

- Alde batetik, Luzaroko aterpea. Partida horretan 90.000 € daude. Eusko Jaurlaritzak 200.000 € emango digunez, aldaketa egingo dugu, eta udalak aurreratuko du dirua.
- Zerga-bilketako teknikaria. Urte erdirako aurreikusita zegoen, eta urtea amaitu arte luzatuko da; beraz, partida hori handitu behar da.
- Agenda 21: 14.000 € gehiago sartzea Arronamendi eta Santa Catalina inguruan biodibertsitate plana egiteko.

- Por un lado, la carpa de Luzaro. Esta partida asciende a 90.000 €. Como se recibirán 200.000 € del Gobierno Vasco, se realizará una modificación, y lo adelantará el Ayuntamiento.
- Técnico de Recaudación. Estaba previsto para medio año y se prolongará hasta finales, por lo que se ampliará esta partida.
- Agenda 21: Ampliación de 14.000 € para la elaboración de un plan de diversidad en la zona de Arronamendi y Santa



DEBAKO UDALA

2021SPLE006

6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

- Bide Publikoak konpondu eta mantenimendua: 15.000 € handitzea proposatzen da.
- Kiroldagiko markagailua: 6.000 €.
- PRak garbitzea 4.300 €.
- Ifar Kaleko obra 7.000 €.
- Mahaiak eta aulkiak erosteko: 4.000 €ko partida.
- Ke-detektagailuak. Aurreikusita zegoena baino gehiago behar da, beraz, 5.000 €.
- Aniztasun planean 3.000 € gehiago.
- Hezkuntza planean, Ikastoletan egin diren lanak beste 3.000 €.
- Kotxe elektrikoak kargatzeko guneak ipintzeko 4.000 €. Eskaerak egon dira Debako herrigunean eta Itziarko Poligonoan jartzeko.
- Hondartzakoa. Hiru urtez behin berritu egin behar da, eta ez zen aurreikusi 2.000 € gehiago.

Catalina.

- Reparación y mantenimiento de Vías Públicas: se propone aumentar en 15.000 € la partida.
- El marcador del polideportivo: 6.000 €.
- Limpieza de PRs 4.300€.
- Obra de Ifar Kalea 7.000 €.
- Compra de mesas y sillas: una partida de 4.000 €.
- Detectores de humos. Se necesitan 5.000 € más de lo que estaba previsto.
- 3.000 € más en el plan de diversidad.
- 3.000 € más en el plan de educación para los trabajos allí realizados.
- 4.000 € para la instalación de puntos de carga de coches eléctricos. Hemos tenido solicitudes para colocarlos en el casco de Deba y el Polígono de Itziar.
- Playa. Se renueva cada 3 años y no se preveía, son 2.000 €

Guztira 288.000 € izango lirateke. Horietatik 200.000 € berreskuratuko ditugunez, altxortegitik 80.000 € beharko ditugu.

En total serían 288.000€, de los que recuperaremos 200.000€, por lo que utilizaremos 88.000 € del remanente.

Esan bezala, 288.000 €ko kreditu aldaketa.

La modificación de créditos es por importe de 288.000 €.

**Gilen:** Ba al dago ekarpenik?

**Gilen:** ¿Algo que aportar?

**Pedro:** Ez. Ogasunean argitu genuen.

**Pedro:** No. Lo aclaramos en Hacienda.

**Iñigo:** Gu ere ados gaude.

**Iñigo:** Nosotros estamos de acuerdo.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Debako Udaleko 3/2021 zenbakidun kredituen aldaketa.

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos 3/2021 del Ayuntamiento de Deba.



DEBAKO UDALA

2021SPLE006

6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

**6.- ITZIARKO AUZO-UDALEKO 2/2021 ZENBAKIDUN KREDITUEN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

**Itziar:** Hau ere Ogasunean aztertu genuen. Bi partida dira: alde batetik, Elorrixako bidea egiteko 35.000 €, eta, bestetik, Endoiako bidea egiteko 14.000 €. Bien kasuan Eusko Jaurlaritzako eta Aldundiko dirulaguntzekin finantziatuko dira. Guztira 49.000 € izango dira.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Itziarko Auzo-Udaleko 2/2021 zenbakidun kredituen aldaketa.

**7.- ARTZABALGO HILERRI BERRIAREN ARAUDIA ETA FUNTZIONAMENDUA EZARTZEN DUEN ERREGELAMENDUA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

**Gilen:** Gaur izango litzateke prozedura horren hasierako onarpena; ondoren, 15 egun egongo da jendaurrean, eta ondoren, erabakia berretsi beharko da, eta behin betiko onartuta egongo da.

Eskerrak ematea egin dugun lanagatik; ez da erraza izan, gora-behera asko ekarri duen gaia izan da. Iruditzen zait oso lan txukuna egin dugula denon artean.

**Pedro:** Komisionan lortu dugu denon artean, eta pozik gaude egindako lanarekin.

**Iñigo:** Eskerrak eman, izan dugun aukera honengatik; alderdien arteko adostasuna ez da erraza, eta hasiera batean hainbeste ezberdintasun zituela zirudien gaia, ez da

**6.- APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE CREDITOS 2/2021 DE ITZIARKO AUZO-UDALA**

**Itziar:** Este tema también se analizó en Hacienda. Son dos partidas. Por un lado, 35.000 € para el trazado del Camino de Elorrixa y 14.000 € para el trazado del Camino de Endoia. En ambos casos se financiarán con subvenciones del Gobierno Vasco y de la Diputación. Total 49.000 €

El Pleno aprueba por unanimidad la modificación de créditos 2/2021 de Itziarko Auzo-Udala.

**7.- APROBAR, SI PROCEDE, EL REGLAMENTO QUE REGULA EL RÉGIMEN Y FUNCIONAMIENTO DEL CEMENTERIO DE ARTZABAL**

**Gilen:** Hoy sería la aprobación inicial de este procedimiento, tras lo cual permanecerá 15 días en exposición pública. Después habrá que ratificar la decisión y quedará aprobado definitivamente.

Agradecer el trabajo que hemos hecho; no ha sido fácil, ha sido un tema que ha traído mucho de sí. Creo que hemos trabajado muy bien entre todos.

**Pedro:** Lo hemos hecho entre todos, en la comisión; y estamos contentos con el trabajo realizado.

**Iñigo:** Agradecer esta oportunidad que hemos tenido. El consenso entre partidos no es fácil, y un tema que inicialmente parecía tener tantas diferencias, no han sido tantas; y tenemos una



2021SPLE006

6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

hainbesterako izan, eta denok gogobetetzen gaituen ordenantza dugu.

ordenanza que satisface a todos.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Artzabalgo hilerri berriaren araudia eta funtzionamendua ezartzen duen erregelamendua.

El Pleno aprueba por unanimidad el Reglamento que regula el régimen y funcionamiento del cementerio de Artzabal.

#### **8.- GAZTE ARTISTA BISUAL BERRIAK SUSTATZEKO SARIAREN OINARRIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

#### **8.- APROBAR, SI PROCEDE, LAS BASES DEL PREMIO A LA PROMOCIÓN DE NUEVOS ARTISTAS JUVENILES VISUALES**

**Aritz:** Hauek izango lirateke lehen urratsak lehiaketa horretarako; onartzen badira, jendaurrean jarriko dira, eta bidea hasiko dugu hurrengo urteko lehiaketa martxan jartzeko.

**Aritz:** Estas serían las bases iniciales para este concurso; si se aceptan se pondrán en exposición pública y comenzaremos el camino para poner en marcha el concurso del año que viene.

**Pedro:** Gu ados gaude.

**Pedro:** Nosotros estamos de acuerdo.

**Iñigo:** Gu ere ados.

**Iñigo:** Nosotros también estamos de acuerdo.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Gazte artista bisual berriak sustatzeko sariaren oinarriak.

El Pleno aprueba por unanimidad las bases del Premio a la promoción de nuevos artistas juveniles visuales.

#### **9.- ELIZBURU 1. SEKTOREKO A.300.5 PARTZELAREN BESTERENTZEARI BURUZKO PROTEISA 2000 S.L.rekin SINATUTAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

#### **9.- APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO FIRMADO CON PROTEISA 2000 S.L., SOBRE LA ENAJENACIÓN DE LA PARCELA A.300.5 DEL SECTOR 1 ELIZBURU**

**Gilen:** Tokiko Gobernuan aipatu dugu bere ibilbidea izan duela; hainbat aukera zeuden. Ikusi dugu zentzuzkoena zela hitzarmen bidez onartzea. Pasa den astean sinatu genuen hitzarmena. Aipatzea zer prezioetan izan den: 442.000 €. Nahiz eta prozedurak ez eskatu, hitzarmenean ipini dugu: *"eskritura publikoan hitzarmen hau sinatzen denetik, gehienez 2 hilabetean formalizatuko da, osoko bilkurak*

**Gilen:** En la Junta de Gobierno hemos mencionado que ha tenido su trayectoria; había diferentes opciones. Hemos visto que lo más razonable era que se aprobara por convenio. La semana pasada firmamos el convenio. Señalar el precio de 442.000 €. Si bien no lo pide el procedimiento, se ha establecido en el convenio que *"se formalizará en el plazo máximo de dos meses desde la firma del presente convenio en*



DEBAKO UDALA

2021SPLE006

6.BILERA: OHIKOA 2021/07/29

onartu ondoren". Horregatik osoko bilkurak onartzea eskatzen dugu.

**Pedro:** Nik galdera bat daukat: 3. paragrafoan: *"con el proyecto de licitación se presentará en el plazo máximo de un mes la formalización de ..."*. Eta bostgarrenean *"se podrá iniciar..."*. Lizitazio-proiektuaren baimena baino lehen zozketatu behar dugu?

**Idazkaria:** Ez. Hilabete daukate proiektua aurkezteko.

**Pedro:** Hemen esaten du: *"...Proteisa podrá exigir para el inicio de las obras que el ayuntamiento haya procedido de forma previa al sorteo de las viviendas tasadas municipales a desarrollar en la parcela... y haberse realizado el correspondiente sorteo entre los interesados..."*

**Idazkaria:** Proteisarekin izandako elkarrizketa batzuk gogoratzen ditut, eta hori horrela planteatzen zen: obrak hasteko erosleak eduki behar dituzte.

**Gilen:** Zer esan nahi duzu?, Zer suposa dezake horrek?

**Pedro:** Denbora. Eta gero *"El proyecto de licitación se presentará en el plazo de un mes..."* Eta aldeaz aurretiko eraikuntza guk zozketa egitearen baldintzapean egotea.

**Gilen:** Nik horrela ulertzen dut. Zozketa modu paralelo batean egin genezake. Beraiek esaten zuten 2008ko krisiaren aurretik, askotan egiten zirela promozioak salduta eduki baino lehen. Ondoren irizpideak dira hori lotuta edukitzea. Kontua da daukagun errealitatea eta eskaera ikusirik ez dut uste formalizazio horrek kalte egiten dionik.

*escritura pública, previa aprobación del Pleno"*. Por ello solicitamos su aprobación por el Pleno.

**Pedro:** Yo tengo una pregunta: en el tercer párrafo: *"con el proyecto de licitación se presentará en el plazo máximo de un mes la formalización de ..."*. Y en el quinto *"se podrá iniciar..."*. ¿Tenemos que sortear antes del permiso de proyecto de licitación?

**Secretario:** No. Tienen un mes para que ellos presenten el proyecto.

**Pedro:** Aquí dice que: *"...Proteisa podrá exigir para el inicio de las obras que el ayuntamiento haya procedido de forma previa al sorteo de las viviendas tasadas municipales a desarrollar en la parcela... y haberse realizado el correspondiente sorteo entre los interesados..."*

**Secretario:** Recuerdo algunas conversaciones con Proteisa y eso se planteaba así, para empezar las obras necesitaban tener compradores.

**Gilen:** ¿Qué quieres decir?, ¿eso qué puede suponer?

**Pedro:** Tiempo. Y luego: *"El proyecto de licitación se presentará en el plazo de un mes..."* y que la construcción previa se haga a condición de que nosotros hagamos el sorteo.

**Gilen:** Yo lo entiendo así. Podríamos hacer el sorteo de una forma paralela. Ellos decían que antes de la crisis de 2008, muchas veces se hacían promociones antes de tenerlas vendidas. A continuación, los criterios son los siguientes: la cuestión es que dada la realidad y la demanda que tenemos, no creo que esa formalización le perjudique.



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

**Pedro:** Agian bai. Seguruenik zuri dirua emateko kliente batzuk izan beharko dituzu. Gauza da batak ez dezala bestea atzeratu.

**Gilen:** Proiekturik gabe ere ezingo genuke finkatu zenbat etxe, nolakoak... irizpide horiek markatu egin behar ditugu.

**Pedro:** Kontraesana ematen du, baina nik ez dakit nolakoa den; ea denok berdin pentsatzen dugun.

**Gilen:** Azken bileretan termino hauetan hitz egin dugu: gauza batek ez dezala bestea baldintzatu. Beraiek proiektua prestatuko dutela eta eraikinaren barne-proiektua, eta guri dagokigula bitartean zozketaren prozedura martxan jartzea. Beraiek gure partean ez ziren hainbeste sartzen, baina formalizatzerakoan horrela zehaztu da.

Osoko bilkurak aho batez onartu du Elizburu 1. sektoreko a.300.5 partzelaren besterentzeari buruzko Proteisa 2000 S.L.rekin hitzarmena.

## 10.- ONDARGAIN KONTRATUAREN SUNTSIPENA

**Gilen:** Denok dakizue zein izan den ibilbidea. Ondargain itxita zegoen, eta hainbat negoziaketatan aritu gara. Zenbait eskaintza egin ziren, eta guzti horren ondoren, esan zitzaigun ez zuela irekiko.

Ikusita zer datatan geunden, nahiz eta organo kontratatzailea Osoko Bilkura izan, ezin zen itxaron plenorarte. Horregatik, kontratua suntsitu zen, eta orain suntsipena berritzea dagokigu. Ados zaudete erabakiarekin?.

**Pedro:** Quizás sí. Probablemente para darte dinero tengas que tener unos clientes. La cosa es que uno no retrase al otro.

**Gilen:** Ni siquiera sin proyección podríamos establecer cuántas casas, cómo van a ser... Esos criterios debemos marcarlos.

**Pedro:** Parece una contradicción, pero yo no sé cómo es, a ver si todos pensamos igual.

**Gilen:** En las últimas reuniones hemos hablado en estos términos: que una cosa no entorpezca a la otra. Que ellos prepararán el proyecto y el proyecto interno del edificio, y mientras tanto, a nosotros nos corresponde poner en marcha el procedimiento del sorteo. Ellos no se metían en nuestra parte, pero al formalizarlo así se ha puesto.

El Pleno aprueba por unanimidad el Convenio con Proteisa 2000 S.L., sobre la enajenación de la parcela a.300.5 del Sector 1 Elizburu.

## 10.- RESOLUCIÓN DEL CONTRATO DE ONDARGAIN

**Gilen:** Todos sabéis cuál ha sido el recorrido. Ondargain estaba cerrado y se han llevado a cabo distintas negociaciones. Se hicieron varias ofertas y después de eso se nos dijo que no iba a abrir.

En vista de las fechas en las que nos encontrábamos, y aunque el órgano contratante era el Pleno, no podíamos esperar hasta el pleno. Se resolvió ese contrato y ahora nos toca confirmar esa resolución. ¿Estáis de acuerdo con la decisión?



2021SPLE006  
6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

Osoko bilkurak aho batez onartu du Ondargain kontratuaren suntsipena.

El Pleno aprueba por unanimidad la resolución del contrato de Ondargain.

## 11.- ESKARI ETA GALDERAK

**Pedro:** Guk proposatzen dugu Debako Udalak dei egin diezaiela herritarrei arduraz joka dezaten, larunbatetan gertatzen ari diren pilaketak saihesteko; eta are gehiago, Debako egoera handitzen ari dela ikusita. Asmoa da, ahal den neurrian, kasuren bat saihestea.

**Iñigo:** Guk ere gauza bera azpimarratu nahi dugu.

Beste galdera bat ere badugu. Uztailean ikusi ahal izan zen zubiko lanen erakusketa. Pixka bat deskolokatuta gaude, erakusketa horren inaugurazioa Diputazioari edo Udalari zegokion? Hurrengo egunera arte ez genuen jakin eta apur bat harrিতa gaude.

Bestea turismo-bulegoari buruzkoa da. Galdetu nahi dugu ea turismo bulegoaren zerbitzua indartzeko asmorik dagoen. Asteburuetan itxita dago, eta edozein bajak eragina du bulegoaren itxieran. Turismo-estrategia ordenatuan eta jasangarrian pentsatuz, funtsezko tresna dela uste dugu. Gugana datorren turismoa bideratzeko ona dela azpimarratu nahi dugu. Gugana datorren turismo-mugimendua aztertzeke ere aukera ematen digu.

**Gilen:** Egin duzuen lehenengo proposamenarekin gu ere ados gaude; oso kezkatuta gaude gai horrekin. Denok batera egitea ideia ona iruditzen zait.

## 11.- RUEGOS Y PREGUNTAS

**Pedro:** Nosotros proponemos que desde el Ayuntamiento de Deba se haga un llamamiento a la responsabilidad de los vecinos para evitar las aglomeraciones que se están produciendo los sábados; y más aún, cuando se está viendo que la situación de Deba va en aumento. La intención es la de evitar en lo posible algún caso.

**Iñigo:** Nosotros también queríamos incidir en lo mismo.

Además, tenemos otra pregunta. La exposición de las obras del puente que pudo verse en julio. Estamos un poco descolocados porque, ¿la inauguración de esa exposición correspondía a la Diputación o al Ayuntamiento? No nos enteramos hasta el día después y estamos un poco perplejos.

La otra es sobre la oficina de turismo. Queríamos preguntar si está previsto reforzar el servicio de la oficina de turismo; está cerrada los fines de semana. Cualquier baja tiene impacto en el cierre de la oficina. Pensando en una estrategia turística ordenada y sostenible creemos que es una herramienta fundamental. Queremos incidir que es bueno para dirigir ese turismo que recibimos. También nos permite analizar todo ese movimiento turístico que recibimos.

**Gilen:** Nosotros también estamos de acuerdo con vuestra primera propuesta. Me parece una buena idea que lo hagamos todos.



DEBAKO UDALA

2021SPLE006

6.BILERA: OHIKOA 20210/07/29

Zubiko erakusketarena, egia esan, ez zen antolaketa onena izan. Bertan agertu ginen Mutrikuko zinegotzia eta ni. Enpresako ordezkariak zeuden, Leon eta baita ere Aldundiko zuzendaritza. Beraiek arduratu ziren aurkezpena egiteaz. Niri M<sup>a</sup> José Telleriak esan zidan: "Zuk ireki". Nik ekitaldiari hasiera eman nion, baina aurkezpena beraiei zegokien. Hara iritsi arte, ez genuen ezagutzen; sorpresa izan zen. Aldundiko zuzendariak komentatu zidan uda bueltan irekita eduki nahi den erakusketa dela. Espazioa hobeto aprobetxatuta eta seguruagoa dagoela. Beraiek hartutako erabakia da, jabetza guztia beraiena da.

Turismo bulegoari dagokionez, arrazoia daukazu aipatutakoarekin. Egoera izan dena izan da, eta egia da azkeneko baja horrekin gabezia hori somatzen dela. Zentzua dauka hori mantentzeak. Zalantzatan egon gara bisitari kopurua ikusita, baita ere baliabideak.

Azkenik esatea nire eskumenak eskuordetuko dizkiodala Itziarri, alkateordea den aldetik, Uztailaren 31tik Abuztuaren 20ra.

Horrenbestez, 19:41etan amaitzen da Osoko Bilkura.

Jorge González Endemaño  
Idazkaria



La exposición del puente, la verdad es que no fue de las mejores organizaciones. Estuvimos el concejal de Mutriku y yo. Estaban los representantes de la empresa, León y la dirección de la Diputación. Ellos se encargaron de la presentación. A mí me dijo M<sup>a</sup> José Tellería "abre tú". Yo inicié el acto pero la presentación les correspondía a ellos; no la conocíamos hasta que llegamos. El director de la Diputación me comentó que se trata de una exposición que se quiere mantener abierta para el verano. Que el espacio está mejor aprovechado y es más seguro. Es una decisión tomada por ellos, la propiedad es de ellos.

En cuanto a la oficina de turismo, tienes razón. La situación es la que es, y es cierto que con esta última baja se nota esa carencia. Tiene sentido mantenerlo. Hay dudas sobre el número de visitantes y los recursos.

Finalmente señalar que delegaré mis competencias en Itziar como Teniente de Alcalde del 31 de Julio al 20 de Agosto.

Sin más temas que tratar, finaliza el Pleno a las 19:41.

Gilen Garcia Boyra  
Alkatea

